

EPAIMAHAIAREN OHARTARAZPENA

Nafarroako Unibertsitate Publikoan Euskarako oinarrizko lanpostuko teknikari izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia (52 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2021eko martxoaren 5ean; Nafarroako Unibertsitate Publikoko kudeatzailearen 2021eko otsailaren 19ko 372/2021 Ebazpenaren bidez onetsia).

Lehenbiziko probari buruzko oharra

1.-Eguna eta tokia:

Onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko argitaratu zen ebazpenean ageri den bezala, oposizioaren lehenbiziko proba **2021eko abenduaren 18an** izanen da, **larunbata, 10:00etan**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko **ikasgelategiko 016. ikasgelan, Iruñeko Arrosadiko campusean**.

Izangaiak Nortasun Agiri Nazionala, AIZ, pasaporte edo gidabaimena aurkeztu beharko dute.

2.-Praktikoa da proba, eta bi ariketa izanen ditu:

a) Lehenbiziko ariketa: gaztelaniatik euskarara itzultzea, gehienez bi orduan, epaimahaiak emandako testuak. Probari dagokion gehieneko puntuazioa 22 puntu da.

b) Bigarren ariketa: euskaratik gaztelaniara itzultzea, gehienez ordubeteetan, epaimahaiak emandako testuak. Probari dagokion gehieneko puntuazioa 8 puntu da.

Bazterturik geldituko dira ariketa bakoitzean gutxienez puntuazioaren erdia lortzen ez dutenak.

Itzuli beharreko testu guztiak emanen dira hasieran, eta guztira, beraz, **hiru ordu izanen dira, 180 minutu**, etenik gabe, izangaiak nahi bezala banatzekoak ariketak egiteko.

3.-Probaren ezaugarriak:

Word dokumentu batean egonen dira itzulgaiak, **ordenagailuan** egin beharrak, Interneteko konexiorik gabe. Izangaiak **hiztegi bat** eramaten ahal du probara, paperean.

Iruñean, 2021eko abenduaren 7an.

Epaimahaiburua eta epaimahaiko kide idazkaria.

Fernando Rey

Patxi Salaberri